

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2025ko urtarrilaren 18tik 24erako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2025/01/18

- **LANEKO ETA GIZARTE EKONOMIAKO MINISTERIOA.** Soldatak Bermatzeko Funtsa. Ebazpena, 2025eko urtarrilaren 3koa, Soldatak Bermatzeko Funtsaren Idazkaritza Nagusiarena, honako ebazpen honen akatsak zuzentzen dituen: 2024ko azaroaren 14ko Ebazpena, zeinaren bidez aldatzen baitira konkurtso-prozedurako hartzekodunen zerrendan sartuta dauden lan-kredituen banakako eta taldeko ziurtapen-ereduak. Eredu horiek eskaera honekin batera joan behar dute: Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina onesten duen 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 33. artikuluan araututako soldatak bermatzeko prestazioen eskaera. **A-2025-860 xedapena- 2 or.**

2025/01/20

- **EKONOMIA, MERKATARITZA ETA ENPRESA MINISTERIOA.** Pentsio-planak eta -funtsak. 2/2024 Zirkularra, abenduaren 18koa, Aseguruen eta Pentsio Funtzen Zuzendaritza Nagusiarena, pentsio-funtsak kudeatzen dituzten entitateen informazio-betebeharrak betetzeko pentsio-planei egotz dakizkiekeen komisioen eta beste gastu batzuen eredu normalizatuak erabiltzeari buruzkoa. **A-2025-880 xedapena- 7 or.**

2025/01/21

- **EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA. Kooperatibak.** 7/2024 Legea, abenduaren 19koa, Euskadiko Kooperatiben abenduaren 20ko 11/2019 Legea aldatzen duena. **A-2025-939 xedapena- 3 or.**
- **EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA. Aurrekontuak.** 8/2024 Legea, abenduaren 20koa, Euskal Autonomia Erkidegoko 2025eko Aurrekontu Orokorrak onesten dituen. **A-2025-940 xedapena- 39 or.**

2025/01/22

- **ESTATUKO BURUZAGITZA. Presako neurriak.** Honen akats-zuzenketa: 9/2024 Errege Lege Dekretua, abenduaren 23koa, zeinaren bidez presako neurriak hartzen baitira ekonomiaren, zergen, garraioaren eta Gizarte Segurantzaren arloetan, eta luzatu egiten baitira zaurgarritasun sozialeko egoerei aurre egiteko zenbait neurri. **A-2025-994 xedapena- 2 or.**
- **INKLUSIOKO, GIZARTE SEGURANTZAKO ETA MIGRAZIOETAKO MINISTERIOA. Gizarte Segurantza. Pentsioak.** 35/2025 Errege Dekretua, urtarrilaren 21ekoa, 2025eko ekitaldirako pentsio publikoen hasierako zenbatekoa mugatzeari eta Gizarte Segurantzaren sistemako pentsioen, klase pasiboen pentsioen eta beste gizarte-prestazio publiko batzuen balio-handitzeari buruzkoa. **A-2025-999 xedapena- 28 or.**

2025/01/23

- **GORTE NAGUSIAK. Presako neurriak.** Ebazpena, 2025eko urtarrilaren 22koa, Diputatuen Kongresuak emana, abenduaren 23ko 9/2024 Errege Lege Dekretua indargabetzeko Akordioa argitaratzeko agintzen duena. Errege lege-dekretu horrek ekonomiaren, zergen, garraioaren eta Gizarte Segurantzaren arloko presako neurriak hartzen ditu, eta zaurgarritasun sozialeko egoerei aurre egiteko zenbait neurri luzatzen ditu. **1136 xedapena- 1 or.**
- **GORTE NAGUSIAK. Presako neurriak.** Ebazpena, 2025eko urtarrilaren 22koa, Diputatuen Kongresuak emana, abenduaren 23ko 10/2024 Errege Lege Dekretua indargabetzeko Akordioa argitaratzeko agintzen duena. Errege lege-dekretu horrek 2025erako aldi baterako energia-karga bat ezartzen du. **1137 xedapena- 1 or.**
- **GORTE NAGUSIAK. Presako neurriak.** Ebazpena, 2025eko urtarrilaren 22koa, Diputatuen Kongresuak emana, abenduaren 23ko 11/2024 Errege Lege Dekretua baliozkotzen duen Akordioa argitaratzeko agintzen duena. Errege lege-dekretu horrek erretiro-pentsioaren eta lanaren bateragarritasuna hobetzen du. **1138 xedapena- 1 or.**

2025/01/24

- **EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA. Zirkulazioa. Neurri bereziak.** Ebazpena, 2025eko urtarrilaren 10ekoa, Segurtasun Saileko Trafiko Zuzendaritzarena, zeinaren bidez ezartzen baitira 2025ean Euskal Autonomia Erkidegoan trafikoa erregulatzeko neurri bereziak. **1220 xedapena- 12 or.**

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

A.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala)

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2024/01/20

- **OGASUN ETA FINANTZA SAILA.** Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 9/2025 FORU AGINDUA, urtarrilaren 9koa, martxoaren 31ko 632/2017 Foru Agindua aldatzen duena. Foru agindu horren bidez, 289 eredua onesten da, elkarri eman beharreko laguntzaren esparruan finantza-kontuei buruz urtero egin beharreko aitorten informatiboa egiteko dena. **I-33 xedapena- 5 or.**

2024/01/23

- **OGASUN ETA FINANTZA SAILA.** Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 15/2025 FORU AGINDUA, urtarrilaren 14koa. Honen bidez, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide berezi erraztuko zeinu, indize eta moduluak onesten dira 2025. urterako. **I-70 xedapena- 36 or.**

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala):

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2
HENAO, 26 - BILBAO